

'Aralar, mundua leku den lurra'-ren paperezko senidea



Idurre Eskisabel, Lorea Agirre, Iban Toledo eta Aloña Jauregi, aurkezpenean. / USOZ

Izenburu bereko dokumentalarekin abiatu zen «proiektua borobildu du» Iban Toledoren argazkiak eta Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen testuak elkartzen dituen liburua

NEREA AZURMENDI
Donostia
Miércoles, 27 mayo 2020, 13:04

Herriz herri aurkeztua, nazioartean saritua -azkeneko saria otsailean lortu zen, Kalifornian, Mammoth Mountain hiriko Mountain Film Festivalen- 2018ko urrian estreinatu zenez geroztik Aralar mendilerroak bere baitan gordetzen dituen alderdi ugariak modu ezin ederragoan hedatzen jarraitzen du 'Aralar, mundua leku den lurra' dokumentalak. Orain, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mendilerroaren inguruko ikus-etzunekoak **izenburu bereko paperezko senidea** du, gaur Donostian aurkeztu den **liburua (52 orrialde, 12 euro), Ereinek argitaratua** eta askoren laguntzari esker gauzatua. Hasieratik proiektua bultzatu duen **Landarlan Natur Elkarteko Aloña Jauregik** aurkezpenean azaldu duenez, «gurea bezalako elkarte txiki batentzat ezinezkoa izango litzateke horrelako proiektu bat bakarrik aurrera ateratzea». Segidan, eskerrak eman dizkie babesle nagusia izan den **Kutxa Fundazioari** eta laguntzaileei: **Foru Aldundiko Kultura Departamentua, Ataun, Itsasondo, Ordizia eta Zaldibiako udalak, Irizar eta Orkli** enpresak.

Album tankerako liburu etzanean elkarren ondoan doaz, bata bestearen parean, **Iban Toledoren orrialde beteko argazkiak** eta **Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek sortutako testuak**. Zuzendari taldeko kide ez ezik, argazki zuzendaria izan zen Toledo dokumentalean, eta Agirrek eta Eskisabelek idatzi zuten gidioa.

Iban Toledok azaldu du Aralarrek agerian utzi dituen altxorrek jaso dituela dokumentalek abiatutako liburuak. «Erretinan gelditu zitzaizkigun planoak, **dokumentalaren adierazgarri diren plano horiek izan dira liburuan islatu nahi izan ditugunak**», adierazi du, oso gustura gelditu dela gehituz.

Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel beasaindarrak ere gustura daude lanarekin, hasieran enkargu zena «opari» bilakatu baita oso bestelako lanetan ibili ohi diren biontzat. Agirrek argitu du «**zer pintatzen dugun guk mendi baten gainean idazten**», eta zergatik eman zioten baiezkua proposamenari: Aralar delako protagonista. «Biak goierritarak gara, eta **Aralar inportantea izan da gure bizitzetan umetatik**. Gure aurrekoak ere Aralarretik datoz... Bestela ez ginake sekula horrelako testu baten aurrean jarriko, baina Aralar gure biografiaren parte oso garrantzitsua da», esan du Lorea Agirrek; «**Aralarrekin lotura estua izan duen genealogia baten parte gara**», berretsi du Idurre Eskisabelek.

Libururako alde batera utzi dituzte dokumentalean pisu handia zuten adituen ekarpenak, baina eutsi diote proiektu osoak islatzen duen **naturaren eta gizakiaren esku-hartzearen arteko tentsioren inguruko gogoetari**, Aralarren modu oso nabarmenean bizi den «jendearen eta inguruaren arteko harreman ezinbesteko eta korapilotsua» islatzeari. Hori dela eta, «**proiektua borobiltzen duen libururako**» aukeratu dute «**hizkera politiko-poetikoa, politika zentzu zabal eta inklusiboan ulertuta**», non hitzen edertasuna ez den bihurtzen gatazta eta arazoan estalki.

TEMAS [Zabalik](#)

Comentarios

PATROCINADA

Lo + leído

El Diario Vasco | **Libros** | [Top 50](#)


- 1 **Aspaldiko gerretako kontuak, botereaz, propagandaz eta manipulazioaz aritzeko**
- 2 **'Aralar, mundua leku den lurra'-ren paperezko senidea**
- 3 **'Ene baitan bizi da', amatxik gordeta zeuzkan orotzapen eta bizipenak**
- 4 **Generoaz eta sexuaz irakatsi digutena hankaz gora jartzen duen liburua**
- 5 **Ana Santos: «La cuarentena es lo más seguro para desinfectar libros»**

Fotos

Mascarillas en el museo | **El fotógrafo que retrata el 'lenguaje' del frontón** | **A la calle, con mascarilla** | **Vuelve la NASCAR**

Vídeos

Día del Libro: Las recomendaciones de los periodistas de El Diario Vasco



EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Domicilio social en Camino de Portuñue, 2 San Sebastián 20018



vocento

- ABC
- ABC Sevilla
- Hoy
- El Correo
- La Riça
- El Norte de Castilla

- Diario Vasco
- El Comercio
- Ideál
- Sur
- Las Provincias
- El Diario Montañés
- La Voz Digital
- La Verdad

- Leonoticias
- Burgosconecta
- Piso Compartido
- Infoempleo
- Finanzas
- Autocasión
- Oferplan
- Pisos.com

- Mujerhoy
- XL Semanal
- Código Único
- Pidecita
- TopComparativos